

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Hezkuntza NUPekin elkarlanean ariko da gaitasun handiak eta arreta-falta duten ikasleentzako babesa hobetzeko

Bi erakundeek hitzarmen bat izenpetu dute prestakuntza, praktika eta ikerketako arloetan neurriak hartuz

Jueves, 07 de mayo de 2015

Hezkuntza

Departamentuak eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak (NUP) lankidetzahitzarmen bat izenpetu dute ostegun honetan, gaitasun handiko eta arreta-falta eta hiperaktibitateko desoreka duten ikasleentzako babesa hobetzeko.

Hezkuntzako kontseilari Jose Iribasek eta unibertsitate horretako errektore Julio Lafuentek izenpetutako neurriak jasotzen ditu prestakuntza-arloan, unibertsitateko praktiketan eta ikerketan.



Iribase kontseilaria eta Lafuente errektorea hitzarmena izenpetzen.

Alde batetik, ikasle-mota horiei lotutako edukiak sartzeari aurreikusten du Haur eta Lehen Hezkuntzako Irakasletzako gradu ikasketetan, eta Unibertsitateko Masterra Bigarren Hezkuntzako Irakasletzan.

Gainera, curriculumeko praktikak Nafarroako ikastetxeetan egiten dituzten unibertsitateko ikasleek praktika horiek ikasle horiekin egin ahal izatea jasotzen da, bai eta gradu-amaierako beren lanak edo masterrekoak ikasle horiei buruz izatea ere.

Azkenik, bi erakundeen arteko lankidetzahitzarmenak finkatzen ditu honako hiru errazteko xedearekin: unibertsitateko irakasleek ikerketak egin ahal ditzaten gaitasun handiko eta arreta-falta eta hiperaktibitateko desorekaren alorrean.

Testuak jasotzen duenez, hitzarmenaren barneko ekintzetan parte-hartzeak ez du lan-harremanik edo inolako ordain ekonomikorik ekarriko ikasleentzat nahiz irakasleentzat.

Hitzarmenak hiru ikasturteko indarraldia du 2015-2016 ikasturteetik kontatzen hasita. Haren jarraipena egiteko, batzorde bat eratuko da, eta parte hartzen duten erakunde bakoitzeko bi ordezkari izango dira bertan.